

IKAS(TALO)

2



AEK-ko B2-C1 mailako ikasleek
Kanbon eginga, 2025eko agorrilean

- | | | |
|----|--|-------------|
| 01 | Aurkibidea | 2. orr. |
| 02 | Arta etxeak
Jenofa | 3-4. orr. |
| 03 | Xerri karrika
Alicia | 5-6. orr. |
| 04 | Txokolatea
Méloé, Céline eta Maia | 7-8. orr. |
| 05 | Kanboko Txikito
Franck | 9-10. orr. |
| 06 | Mixel Labeguérie
Mayie eta Pantxika | 11-12. orr. |
| 07 | Kanboko “La-Mi”-en borroka
Maider | 13-16. orr. |
| 08 | Bi zaldi
Jakes | |

02

ARTA ETXEAK

Aspalditik, Kanbo hiria osasunari lotua da, hainbat arrazoigatik: ongi kokatua delakoz, mikroklima berezi bat duelakoz, eta ur onak badirelakoz.

Horregatik, arta etxe anitz ikus dezakegu, eta zentro berezi bat, AIEC, hori ere osasunari lotua bi modutan: artatzaile formakuntza eskaintzen du, baita animazio kulturala ere, artearen inguruan.



Garai batez, tuberkulosia baizik ez zuten tratatzen, eriek orenak pasatzen zituzten arte etxeko terraza handietako etzaulkietan, eguzkiaz baliatzeko, antibiotikoak ez baitziren oraino aurkituak.

Gaur egun, etxe horiek moldatu dira eta arta desberdinak eskaintzen dituzte. Haien artetik, “Annie Enia” zentroa. Zentro horrek garrantzi handia du, arnas arazoak tratatzen ditu, baina badu zerbitzu berezi bat “paliatiboen artak” emateko. Helburua da bizitzaren azken zatia arintzea, goxotasunean jendeak eramateko azken puntu arte.



Horrek erran nahi du dena egina dela min fisikoa arintzeko, baita min morala gutitzeko ere, osasun talde osoaren laguntzarekin.

Erien ongizatea da denen lehentasuna eta erien inguruer ere laguntza eskainia zaie. Behar delarik, mediku taldeak sedazioa proposatzen du, eria sufrikarioan ez uzteko, beti dolorea edo oinazea arintzeko xedea ukanez.

Holako guneetan hainbat profesional badira: medikuak, erizainak, psikologoak, kinea, garbiketa langileak, sukaldariak, bulegoko langileak eta abar. Euskara erabiltzen ahal da.

Nahiz eta giroa aski gogorra den, gizatasun handia sumatzen dugu. Heriotza hurbil izanik ere, bizitakoa usu aberatsa da, eta anitzek diote “bizi gune” dela.

Horra Kanboko alde ttipi bat!



03 XERRI KARRIKA

Aurkeztuko dizuedana Kanboko lekuri zaharrenetakoa da: “Xerri karrika” deitzen da eta, zalantzarik gabe, kale tipikoenetako bat da. Lehen, aldi berean, artisau eta merkataritza tokia zen. Esaterako, saltegi batzuk aurki zitezkeen : janari denda, zapataria, bizikleta saltzailea, zaldi gurdiak alokatzeko enpresa, tabako denda, errementeria eta harategi batzuk. Horregatik, “Xerri karrika” deitzen da.



Baina, kale honek beste istorio famatua du. Karrika honetan, lehen “Biskotx-Enia” izeneko etxe oso handia aurki dezakezue. Orain dela 200 urte (1832an), gozotegia zen, “Marianne gozotegia” eta han, Marianne Hirigoyenen amanda bixkotxak eros zitezkeen. Batzuek diote berak euskal bixkotxa asmatu zuela!

Gozotegia 50 urtez kudeatu zuen, azken urteetan bere alabak lagunduta. Ondoren, XIX. mendearen hasieran, bere bilobek segitu zuten, “Bixkotx ahizpak” izendatuak, fama handiarekin. Kanboko bixkotxaren tradizioak iraun du eta Edmond Rostandek, berak ere, Cyrano de Bergerac antzerkian, amanda bixkotxa aipatu zuen.




Gaur egun aldiz, ez da gehiago saltegitik kale honetan, garbitegi bat izan ezik, baina euskal bixkotxa besta urtero ospatzen da Kanbon.

“Xerri karrika” bidea segitzen baldin baduzue, jakinarazten dizuet 80 eskailera-maila badituela, bi auzoen arteko lotura irudikatzen dutenak, hain justu, Kanbo zentroa eta Kanbo beheraren artekoa. Begi bistakoa da pasabidea biziki erabilia zela, biztanleak gehienetan oinez mugitzen zirelako. Beraz ausar zaitzete inguru honetan ibiltzera eta xehetasunak ikustera!

04 TXOKOLATEA

XVII. mendean, portugaldar juduak Espainiatik eta Portugaletik kanporatu izan zituzten Inkisizioaren erruz. Askok Baionako portura jo zuten, eta han txokolatea lantzeko teknikak ekarri zituzten. Txokolatea, jatorriz, Ameriketatik dator.

Euskal Herriko elitea azkar liluratu zuen txokolate beroaren zaporeak, eta horrela, trebetasun horiek zabaldu izan ziren Baionan eta Kanbon.



Kanbon, esaterako, Fagalde eta Noblia bezalako familia ospetsuek txokolategintzan jardun zuten. Behin batean, Lourdeseko Christophe Puyodebat Baionara etorri zen gozogintza ikasketak egitera. Emeki emeki, txokolategintzarekiko pasioa hasi zen Christophe hartzen (konturatu zen posible izanzen zela gauza anitz egitea mundu honetan).



Hori dela eta, 2000. urtean, bere lehen denda ireki zuen Baionan. Arrakasta nahiz eragin handia ezagutu zuenez, bertze txokolate -toki bat ireki zuen Kanbon, eta ordutik bere enpresa etengabe garatzen ari da.

Gaur egun, Puyodebat-en Kanboko enpresak lau gela nagusi ditu: hasieran laborategia eta denda eraiki zituzten, eta iaz dastatze-gela bat gehitu zuten, "Mustatxa Katilua" izenekoa.

Garai batean, mustatxadun jaunek haien bibotean ezartzen zuten argizaria babesteko, bazen katiluetan leku propio bat, mustatxa pausatzeko.



Azkenik, bukatzeko, txokolatearen museoa ireki dute, txokolatearen historiari buruz.

05 KANBOKO TXIKITO



Joseph Apesteguy, “Chiquito de Cambo” izenez ezaguna, 1881ko maiatzaren 20an sortu zen Kanbon. 13 anai-arreba zituen. Ttipitatik hasi zen pilotan jokatzene eta 17 urterekin, Bidarteko pilotari famatuarenari, (garai hartako munduko txapelduna zen Arrueri) partida bat irabazi zion 60 eta 33. Gaztaroan, mutiko eder bilakatu zen fisiko handi batekin. 1,95m neurtzen zuen eta 95kg pisu zuen.



Hortik hasi zen Kanboko Txikitoren fama. Pilotari profesional bihurtu zen eta edozein frontoitara joaten zen partidak jokatzerara. Bai Euskal Herrian, Frantzian (Arcachon, Niza, Royan eta abar) edo Espainian, baita Ameriketan ere.

Argentinara joan zen desafio batzuetan parte hartzera eta irabaztera. Pertsonaia famatua eta publikoa zen, eta besteak beste, erregearen aitzinean jokatu zuen. Bestalde, partidak antolatzeko eta dirua kudeatzeko enpresari bat hartu zuen.

Momentu hartan, Txikitok diru asko irabazi zuen. Egia esan behar da kasik beti irabazi zituela partidak. 1900ean Joko Olinpikoetan parte hartu zuen eta 14 urtez segidan munduko txapelduna izan zen.

1914an lehen mundu gerla hasi zen eta 4 urtez Txikito frontean egon zen. Legendak kontatzen du bere xistera erabili zuela granadak botatzeko. Gerla eta gero, berriz aritu zen pilotari profesional gisa, eta batzuetan ez zuen dirua onartu, bere ustez partida gaizki jokatu zuelako. Horrelakoa zen Kanboko Txikito, harro eta irabazle.



1939ko abuztuaren 29an, Miarritzeko Aguilera kiroldegian bere 2000. partida jokatu zuen 58 urte zituela. 1946an, 65 urterekin erretiratu zen frontoietatik. 48 urte pasatu zituen frontoi guztietan eta partidu asko irabazi zuen, baita dirua ere.

Zoritxarrez, bere enpresaria lapurra zenez, Txikito oso pobre hil zen Lapurdiko Getarian 1950eko abenduaren 21ean. Aldiz, bere enpresaria aberats hil zen, pilota inoiz hunkitu gabe.

06

MIXEL LABÉGUERIE

BIZITZA ETA EKINTZAK

Michel Labéguerie 1921ean sortu zen Uztaritzen eta 1980an Tolosan (Okzitania) hil zen. Ama musikaria zen, piano joilea eta, aita, aldiz, arotz errementaria. Sarrera gisa erranen dugu bizi zinez aberatsa ukan zuela.



Medikuntza ikasketak egin zituen eta bularreko eritasunen tratatzeko ikasi zuen Parisen. Bere mediku kabinetea plantatu zuen Kanbon eta han lan egin zuen 1962 arte denbora osoz eta gero gutiago, bere kargu politikoengatik. Karisma handia zuen. Bazekien mintzatzen eriekin eta beren familiekin. Lortzen zuen haien konfiantza, hartzen zuen denbora heiekin mintzatzeko eta euskaraz euskaldunekin. Bihotz handikoa zela-eta mediku bisitak ez zituen pagarazten kasu batzuetan, sortzez eritasun joak ziren. Kanboko arta eritegiak ere sustengatu zituen.

Michel Labégueriek ez zuen bere lana medikuntzara mugatu, kultur eta politika arloetan ere eragin handia izan zuen. Kultur arloan izan zen euskal kantagintza berriaren aita, zeren eta bide berriak ireki zituen. Etorkizunerako giltza agertuz, Euskal Herriko pizkundearen bidea mugaren bi aldeetan.



Bi disko ttipi argitaratu zituen, lehena 1961ean eta bigarrena 1963an, eta beste zortzi abesti grabatu izan ez direnak. Beren kantuak eusko aberriari eta euskarari erakuts zeramaten, adibidez “Gazteri berria”. Bestalde, abesti horiek erakutsi zuten musika egiteko beste modu bat bazela. Xabier Letek zioenez “Labéguerie-ren diskoek izugarritzko garrantzia izan zuten kantagintza herrikoiaaren estilo aldaketan”. Ondotik Hegoaldean sortu zen “Ez Dok Amairu” taldea, udazkeneko 1965ean. Elkarre horretan, barne ziren Xabier Lete, Mikel Laboa, Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi eta beste artista zonbait.



Michel Labéguerie-k idatzi eta musikatu zituen kantu mota desberdinak, kantu goxoak edo sehaska kantuak, “Haurtxo haurtxoa”, naturari buruz kantuak, “Elur egin du”, kantu erakargarriak “Parise eta Madrile”, eta beste, nola ez aipa “Xorieri mintzo zen”.

Politika mailan, abertzale zen Michel Labéguerie, 1961ean Enbata kazetaren sortzaile bat izan zen eta kargu publikoak lortu zituen. Auzapez garaian, gauza anitz egin zuen. Adibidez, erabaki zuen kirol konplexu baten eraikitzea, bere izena gero hartu duena. Horri esker, kirol praktika zabaldu zen Kanboko eta inguruko gazteen artean.

Amaitzeko, erraiten ahal da Michel Labéguerie izan zela euskaltzale jakituna, abertzale, elekari bikaina publikoaren aitzinean, lagunkina, alaia eta artista. Seguruenik gizon horrek bizi batean bizi anitz bizi zituen.

07 KANBOKO "LA-MI"-EN BORROKA

Duela hiru urte gertatzen zen haien lehen abisuaz denok oroitzen gara. Errobi errekarat haien harri gorri famatua botatu zuten "La-Mi"-ek eta ondorioz bainua galarazi izan zen guretzat.

Bigarren oharpena orain gertatzen da Euskal Herri osoan sekulako beroa eta idortearekin, urari haien adierazpen moduari zintzoak direla erakutsiz. Zer nahi digute erran? Guk "errekontziliazioa" deitzen dugunari haiek "menperatze bukaera" izan ematen diote. Kanboko udal-bilkuretan ez dira denak ados "La-Mi" hauek entzuteko.



Oroitzapen txiki bat egin behar da oraingo egoera ongi ulertzeko: nor dira "La-Mi" hauek eta non dira? Erdi erleak dira izaki txiki hauek. Airean eta uretan ibili daitezke. Olerkari eta musikari populua da: ahalboka deitzen duten bi notazko tresna usu dantzarazteko baita ere beste mundu bat irudikatze erabiltzen dute haien pestetan. Animalien artean bizi dira, horregatik "Xorioneku" haien lema agertzen zen haien ate aurrean.





Lehen elkarrekin bizi ginen eta betidanik bakea zen gure bi gizarteen artean. Baina duela hiru mila urte "Harri Gorri Gerla" hasi zen. Urtsu mendiko harpeetan bizi ziren eta Harri Gorri berezi hori erabiltzen zuten arimen ispiluz. Zehatzago erranik, Harri hori magikoa da: ez du bakarrik gure aurpegia islatzen baita ere gure harrokeria. Ezaugarri hau agertzen bazen, haien buruz trufatzen zuten eta gero haien baitan garbiak sentitzen ziren. Beraz gauero begiratzen zuten arimaren eta komunitatearen osasuna mantentzeko. Gizakiek harri gorri hori ikusiz, saldu nahi zuten mundu osoan portzelana ekoizpenerako eta hasi ziren La-Mi populua baztertzen, menperatzen... hiltzen. Bizirik atera zirenak esklabo bihurtu ziren edo besteek Kanboko Elorri mendira ihes egin zuten.

Gero, hiru mila urtez haien mendekua prestatu zuten eta haien presentzia oroitarazi digute Errobiko ur gorritze gertakariarekin azken urte hauetan. Geroztik, Kanboko udaletxeak haientzat erreserba eraiki zuen Elorri Mendian. Nahiz eta lehen urratsa den, batzuek erraten dute ez dela aski eta gainera presondegia dela.



Orain, Kanboko herria banatua da. La-Mi-en alde eta La-Mi-en kontra. Haien alde jokatzeko dutenak alderdi berriak dira. Anitz dira, adibidez "L'ami", "Erle-erne", "Bu-Lamiak", "Hari-gogor" eta eskaera jendeak izenpearazi diete. Orain, 2 123 561 boz jaso dituzte.

Kanboko herrian, anitz da. Borrokatzen dute, bederen, "genozidio" hitza onartua izan dadin eta haien eskubideak defenditzeko. Aldiz, haien kontrakoak alderdi zaharra eta azkarra bakarra da: "Fa-Si"-ak. Haiek erraiten dute La-Mi-ek gizakien lanak ebatsiko dizkigutela eta gero eta gehiago izanen direla fiteago ugaltzen baitira aski toki dutelarik. Aditzen ahal dugu ere kultura desberdinak ditugula eta ezinezkoa litzatekeela afinatu gure artean. "Beti haien artean dira" deritzote, eta "ez dutela nahi nahastea" frogatzen litzateke.



Hala bazan ala ez bazan, esamesa handitzen ari da: «gure betiko hizkuntza aldatu nahi dute, hitzak asmatzen dituzte, adibidez "badatsegit" aditza!» entzun dut ere Kanboko Xerri karrikan.

Batzuek uste dute naturalki gaixtoak direla eta hil nahi gaituztela. Baina haiek ahanzten alegia egiten dute gerla eta harrokeria guk genizkiela erakatsi haien Harri Gorria ebatsiz. Azkenean, "Fa-Si"-ek "La-Mi"-ak ez dituzte ezagutzen eta hori arrazoi handiena da beldur eta haien kontra izateko.

Arazo handiena hori da: "Fa-Si"-ek hedabide anitz badituztela ("Eria", "Oraingo balioak", "K-niuz"...) eta horri esker, gizartean alimaleko eragina badutela. Eta berean, nahiz eta ez duten argiki erraten, oraingo Herriko Etxeetakoekin lotuak dira. Horregatik manifestaldietan begi edo esku bat galtzen ahal ditugu eta arrakasta ukan zuen eskaera kontutan ez zen hartu. Ikusten dugu egoerak zailtasun anitz dituela. Kanboko bestak baitira, hautetsiek gai hori ez dute nahi aipatu baina tentsioa sentitzen da karrika guztietan.



La-Mi-entzat ezkorra izatea erreza da Fa-Si-ek dudatzen ez dutelako berri faltsuak errateko. Orain, kontakizun gerla da eta heldu den urteko hauteskundeetan ageriko da dudarik gabe.

Espero dezagun azken aurkiberriek lagunduko gaituztela aterabide baten atzemateko: Iparraldeko Irulegiko ikusketetan hezurtza bitxi batzuk goiz honetan topatu dituzte... Lehen hipotesia gure arbasoak zirela, bai gizakienak eta bai... "La-Mi"-enak.

08

BI ZALDI

6 urte nituen joan nintzelarik Kanbora oporrak pasatzeko osaba baten etxean. Aitak bi anai zituen Kanbon bizi zirenak. Bata, donadoa, Indotxinako gerlan ibilia, anaiaren etxean gelditzen zen garai hartan, beheko plazan kokaturiko etxe ttipi pollitan. Hortan bizi ziren ere, bertze osabaren esposa eta bere 3 haurrak, nere kusiak beraz.

Soldadoan izandakoa handia eta azkarra iduritzen zitzaidan. Gainerat aurpegia seriosa zuen, begi zorrotzekin. Hala ere gisakoa zen, beti pieza (sos) bat zuen niretzat inguruko epizerian oñoñak eros nitzan. Berezitasun bat bazuen ere, auto baten jabea zen, Citroën 'Bi Zaldi' delako bat. Eta denbora haietan sekulako afera zen hori, ez bait ziren oraikoetan bezala hainbeste beribilik. Maiz oinez joaiten giñen (ni eta kusiak) Beheko plazatik Haltsura, amaren sortetxerat, bertze familiatakoekin (senideekin) elgarretartzeko, beribil bat ere ikusi gabe.

Egun batez, kusien gainean abantaila hartzeko, otoa gidatzea banakiela aipatu nien espantuka. Erran behar da, 'Paristar ttikia' deitzen nindutela kusiek, erdi trufaz. Orduan, lauak sartu ginen Bi Zaldian, gakoturik ezbaizen, ni bolanta (gider) aintzinean. Bapatean, oraino ez dakit nola, Citroën-a hasi zen patarra goxoa jausten eta bizpahiru metro urrunago murrurekin topatu zen, aldeko hegaltxua xehakatzuz...

Denak etxetik ateratu ziren oihukaz, ottoak eta ttanta (izeba) Katixa, ama eta aita. Honek sekulako zaflako bat eman nion, merezi nuena, aitorzen dut!

Ondoko Eguberrian osaba jin zen Pariserat eta ez nion sosa eman. Baina bai opari eder bat ekarri nion, Jostagailu bat: Bi Zaldi bat.

Paristar Ttikia

